

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL KONTSEILUA 2023ko MAIATZAREN 9ko OHIKO BILKURAREN AKTA

Bertaratu direnak:

José Antonio Rodríguez jauna, Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordea eta Kontseiluko presidentea. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburu Nerea Melgosak gai-zerrendako 4. puntuan egin du bat bilerarekin.

Josu Urrutia jauna, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko presidente eta Kontseiluko presidentea.

Leixuri Arrizabalaga andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen, Berdintasunen eta Herritarren Partaidetzaren Batzordeko presidentea.

Mikel Hidalgo jauna, kanpo-ekintzaren arloko eskumeneko saila ordezkatzuz.

Ibon Narbaiza jauna, nekazaritzaren arloko eskumeneko saila ordezkatzuz.

Miguel Sánchez jauna, osasunaren arloko eskumeneko saila ordezkatzuz (13:56an iritsi da, bigarren bozketa baino lehen).

Amaia Barredo andrea, ingurumenaren arloko eskumeneko saila ordezkatzuz.

Paul Ortega jauna, eLankidetzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendaria.

Ainhoa Campo andrea, Arabako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Juan Manuel Balerdi jauna, Euskal Fondoa ordezkatzuz.

Milagros Domínguez andrea, Mónica González andrea, Eneko Gerrikabeitia jauna, Iñaki Orube jauna, Martin Iriberrri jauna, Irene Molero andrea eta Natalia Rodríguez andrea Euskadiko GGKEen Koordinakundea ordezkatzuz.

Natividad Campillo andrea, Zalóa Pérez andrea, Igone Revilla andrea, Alberto Cereijo jauna, Gorka Urrutia jauna eta Marta Macho andrea garapenerako lankidetzaren beste euskal gizarte-eragile batzuk ordezkatzuz.

Noemí de la Fuente andrea, Kontseiluko idazkaria, hitzarekin eta botorik gabe.

Presidenteak gonbidaturik, honako hauek bertaratu dira, hitzarekin baina botorik gabe:

Ainara Arrieta andrea, eLankidetzako koordinazio teknikoko zerbitzuko, gai-zerrendako 4. punturako.

Ana Telleria andrea, eLankidetzaren koordinazio teknikoko zerbitzuko, Kontseiluko idazkariari laguntzeko.

Ezin agertu izana adierazi dute:

Marian Olabarrieta andrea, gizarte-ongizatearen eta gizarte-zerbitzuen arloan eskuduna den saila ordezkatzuz.

Hernando Lacalle jauna, ogasunaren arloko eskumeneko saila ordezkatzuz.

Begoña Pedrosa andrea, hezkuntza-saila ordezkatzuz.

Zuriñe Elordi andrea, Emakunde ordezkatzuz.

Ignacio Rodríguez jauna, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz.

Fernando San Martín jauna, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Ernesto Sainz jauna, EUDEL ordezkatzuz.

Iñigo Eguren jauna eta Arantza Acha andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundea ordezkatzuz.

Lekua: eLankidetzako egoitza.

Eguna eta ordua: 2023ko maiatzaren 9a, 12:00etan

Urteko lehenengo ohiko bilkurari hasiera eman dio presidenteak, agurrarekin. José Antonio Rodríguezek adierazi duenez, sailburuak beranduago bat egingo du bilkurarekin, agenda-arazoak tarteko, eta aurkezpenen txandari ekin dio.

Ondoren, isilune bat egitea eskatu die bertaratutakoei berriki erail dituzten Guatemalako CODECA Landa Garapenerako Batzordeko Nicolasa López eta Victoria Méndez kideak gogoratzeko.

1. Aurreko bilkuraren akta onartzea.
2. 2023rako kontseiluaren lan-plana aurkeztea eta onartzea.
3. eLankidetzaren eta foru-aldundien 2023rako plan, aurrekontu eta deialdiei buruzko informazioa.
4. Eusko Jaurlaritzaren proiektuen tresnaren ebaluazioaren planteamendua aurkeztea (eLankidetzaren).
5. Kontseiluaren dekretua aztertzeke lantalde bat sortzeari buruzko erabakia.
6. Galde-eskeak.

Eragozpenik ez dagoenez, gai-zerrendako lehen puntuari ekin zaio.

1. AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA

Aurreko bilkura 2022ko azaroaren 21ean izan zen, eta bilkura horretako akta aho batez onartu dute bertaratutakoek, inolako eragozpenik gabe.



Akta_GLEK_bilkura_
21_11_22.pdf

2. 2023rako KONTSEILUAREN LAN-PLANA AURKEZTEA ETA ONARTZEA

José Antonio Rodríguezek adierazi du maiatzaren 2an Batzorde Iraunkorrek 2023rako lan-plana onartu zuela eta dokumentu hori deialdiarekin batera bidali zela. Idazkariari eman dio hitza, proposamena aurkeztu dezan.

Noemí de la Fuentek adierazi du, Kontseiluaren lehen bilkura izanik eta ohikoa denez, (i) lan-plana aurkezten dela; eta, horrekin batera, (ii) urteko planak, aurrekontua eta lau erakundearen deialdiak. Oraingoan, Arabako Foru Aldundiaren eta eLankidetzaren informazioa aurkeztuko da soilik, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak ezin etorria adierazi baitute, eta ez dago haien ordezkariarik bilkuran.

Gainera, adierazi du Kontseilu Iraunkorrean gai-zerrendan bi puntu gehiago sartzea erabaki zela: (iii) PROren ebaluazioaren ezaugarri orokorrak aurkeztea; eta (iv) Kontseiluaren dekretua aztertzeke lantalde bat sortzea.

Noemík adierazi duenez, kontuan izanda berehala foru- eta udal-hauteskundeak izango direla, hiru erakunde publikoetako karguak eta tokiko bi erakundeak berriro beharko dira

aurten eta, horrenbestez, ezingo da Kontseilua berriz deitu udazkenara arte. Adierazi du arrazoi horregatik planteatzen dela hilean behingo hiru bilkura egitea urritik abendura bitartean, eta gaiak egokitu egingo direla, gai horiek egutegian txertatzeko egokitasunaren arabera.

Azaltzen jarraitu duenez, urriko bilkuran behar bezala izendatutako ordezkari berriek parte hartuko dute eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua eLankidetzaren Kontseilu Errektorean ordeztuko dituzten pertsonak eta Batzorde Iraunkorra osatuko dutenak aukeratuko dira. Era berean, bilkura horretan eLankidetzaren 2022ko memoria eta dekretu berria lantzeko talde eragilearen lan-proposamena aurkeztuko dira.

Gehitu duenez, hainbat gairi ekingo zaie urritik abendura bitartean, hala nola: (i) lege-proiektuaren aurkezpena eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan aztertutako bertsioarekiko aldaketak, (ii) Ginea Bissauko osasun globaleko ekimenari buruzko informazioa, iazko azaroko bilkuran aztertzeke geratu zen gaia; (iii) Koordinakundeak eskatuta, euskal GGKEek Chiapasen izan duten inpaktu sozialari buruzko txostena; (iv) eLankidetzako giza eskubideen defendatzaileen ibilbide-orria eta komunikazio-protokoloa; (v) dekretua, programak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluak aztertutako testuarekiko aldaketa nagusiak aurkeztea, (vi) eLankidetzako Ekintza Humanitarioko Estrategiaren ebaluazioaren emaitzak; (vii) erakunde arteko beste ekimen batzuei buruzko informazioa.

Noemí adierazi du malgutasuna dagoela sortu daitezken beste gai batzuk ere gehitzeko, betiere interesekoak badira eguneko gai-zerrendan sartzeko, eta bertaratuei eman die hitza lan-planari buruzko komentarioak eta oharrak egin ditzaten.

Iñaki Orubek komentatu du politiken koherentziaren gaia faltan hartzen duela planean erakundeek politika horiek garatzeari begira.

Inork beste esatekorik ez duenez, bozketari ekin zaio. Proposamena aho batez onartu da.



Laneko_plana_Plan_tr
abajo_23.pdf

3. ELANKIDETZAREN ETA FORU-ALDUNDIEN 2023rako PLAN, AURREKONTU ETA DEIALDIEI BURUZKO INFORMAZIOA

José Antoniok adierazi duenez, Kontseiluak aholkatu, informatu eta lagundu egiten du, eta hobekuntza-proposamenak sortzen ditu euskal lankidetzaren publiko osorako. Hori horrela izanik, gogorarazi du 2018an Batzorde Iraunkorrak urteko lehen osoko bilkuran erabaki zuela Kontseilua osatzen duten administrazio publikoetako bakoitzak bere urteko planak, aurrekontuak eta lankidetzaren deialdiak aurkeztu behar zituela. Adierazi du bilkura honetan, zoritxarrez, ezin dutela Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundietako ordezkariak parte hartu.

Ondoren, Ainhoa Camposi eman dio hitza; AFA Arabako Foru Aldundia ordezkatzuz bertaratu da. Ainhoak adierazi du aurrekontua 1.448.000 eurora iristen dela, nabarmen handitu delarik iazkoarekin alderatuta.

Azaldu du AFAk hiru deialdi-lerro dituela irekita: (i) ekintza puntualetako lankidetzaren

proiektuak, ebazpen-fasean dagoen eta 14 erakunde aurkeztu diren lerroa; (ii) gizarte-eraldaketarako hezkuntza-proiektuak, hau ere ebazpen-fasean, 145.000 euroko aurrekontuarekin eta 16 erakunde aurkeztu direlarik; eta zenbait urtetarako (21-23) garapenerako lankidetzaproiektuak, 500.000 euroko aurrekontuarekin.

Gainera, Gasteizko udalarekin batera kudeatzen den LAF Larrialdietarako Arabako Funtzaren mekanismoa ere badutela gehitu du. Mekanismo horrek laguntza ematen du larrialdi humanitarioko egoeretan eta 150.000 euroekin hornituta dago 2023an. 2022. urtean 8 larrialdi-jarduketa babestu ziren Kongoko Errepublika Demokratikoan, Palestinan eta Ukrainan, 371.000 euroko balioaz.

Azalpenarekin jarraituz, adierazi du erakundeak zenbait lankidetzahitzarmen dituela honako erakunde hauekin: Afanis, haur sahararentzako Bakean Oporrak programarekin, 30 familiak parte hartuko dutela espero delarik; Togoko Karmeldarrak genero-indarkeria pairatu duten emakumeak indibidualki eta kolektiboki ahalduntzeko; Euskal Fundoa, AKUAL ekimenarekin eta Guatemalako Alta Verapaz departamenduko bost udal-erakunde sendotzeko proiektuarekin; SEADen Lagunen Elkarte giza eskubideen babesari, eta gazte sahararren ahalduntzeari eta SEADen ordezkartzaren bulegoari laguntzeko; Manuel Iradier Elkarte Afrikanista emakumeen ahalduntze kolektiborako, eta hitzarmen berri bat Asociación Vasco Ecuatoriana elkartearekin genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzeko.

Azkenik, gehitu duenez, aurten, berritasun gisa, akordio bat sinatu nahi da Gasteizko Udalarekin batera, Latinoamerikan giza eskubideak defendatzen dituzten pertsonen babes-funts bat sortzeko.

Presidenteak bere mintzaldia eskertu dio Ainhoari, eta eLankidetzako zuzendari Paul Ortegari eman dio hitza.

eLankidetzaren urteko aurrekontua eta funts banagarriak aurkeztuz hasi du bere mintzaldia Paul Ortegak. Adierazi du aurrekontua milioi bat euroan handitu ahal izan dela aurten, eta 51.725.598,00 milioi euroan geratu da azkenean. Gizarte-eraldaketarako komunikazio-kanpaina baterako EITBri egindako ekarpena adierazi du berritasun gisa.

Deialdien atalari dagokionez, nabarmendu du proiektuen deialdiak bi milioi euro gehiago dituela, aurrekontu-igoeraren ondorioz, eta deialdiak gutxi gorabehera maiatzaren 26an argitaratzea aurreikusita dagoela. Adierazi du aurten berriro irekiko dela espezializazio-beken deialdia.

Ondoren, gogorarazi du 2022ko abenduaren 20an Gobernu Kontseiluak onartu zuela beste hiru urtez luzatzea (2022-2024) 2018-2021 aldirako IV. Gida Plana, eta 2023ko urteko plana aurkeztzen hasi da. Nabarmendu du 2023ko mugarri nagusietako bat Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legearen aurreproiektua Gobernu Kontseiluan onartzea izango dela, eta, ondoren, Eusko Legebiltzarrera bidaltzea.



Plan Anual_2023.pdf



2023_Fondos_Distrib
uibles.pdf



Ppto_plan_convocato
rias_eLankidetz.ppt

Bestelako komentariarik izan ez denez, gai-zerendako laugarren puntuari ekin dio presidenteak.

4. EUSKO JAURLARITZAREN PROIEKTUEN TRESNA EBALUATZEKO PLANTEAMENDUA AURKEZTEA

Presidenteak azaldu du proiektuei laguntzeko tresna Eusko Jaurlaritzaren lankidetzako politika publikoaren jarduketa-ardatz nagusietako bat dela, bideratzen dituen funtsen bolumenarengatik zein ekintzen dibertsitatearengatik eta bertan esku hartzen duten agenteen kopuruarengatik. Adierazi du 2013an aldatutako 34/2007 Dekretuak arautzen duela tresna hori, eta sakon berrikusi behar dela. Proiektuen tresnaren ebaluazio bat egin behar da nahitaez, betiere lege-aurreproiektu berriaren elaborazioaren markoan eta tresnen markoa bera berrikusteko premia aurreikusiz marko hori koherentea eta eraginkorra izan dadin lankidetzako politika publikoa aurrera eramateko.

eLankidetzako Noemí de la Fuenteri eta Ainara Arrietari eman die hitza, eta lantzen ari diren proposamena aurkezten hasi dira.

Proiektuen tresna Eusko Jaurlaritzaren lankidetzako politika egikaritzeko erreminta nagusietako bat dela azaldu du Noemík. 2007-2021 aldian burutu diren 15 deialdietan, guztira 433.9 milioi euroko balioa izan duten laguntzak eman dizkie Eusko Jaurlaritzak 1.284 proiektuari.

Azalpenarekin jarraituz, azaldu du “proiektuetarako laguntzak” tresnaren ebaluazioan ondorioak eta gomendioak ateratzea bilatzen dela, tresna hori arautzen duten araudiak aldatzea ahalbidetzeko moduan (2007an onartutako eta 2013an aldatutako dekretua) eta tresnaren kudeaketan hobekuntzak lortzeko; horregatik, ebaluazioa izaera mistokoa izatea eta ikaskuntza-ikuspegiarekin egindakoa izatea aurreikusten da.

Tresnaren izaera estrategikoa kontuan izanda, Noemík adierazi du ebaluazio horretatik eratorritako ondorioak lagungarriak izango direla halaber Eusko Jaurlaritzaren lankidetzako politika publikorako tresnen marko koherente eta eraginkor bat sustatzeko helburu zabalagorako.

Lortu nahi dituen helburu espezifikoak, ebaluazioa gidatuko duten printzipioak eta aztertu beharreko aldia (ikusitako dokumentua) adierazi ditu. Eta argitu du une honetan ez dela aurreikusten bertara ekimenak aztertzerako joatea, baizik eta ebaluazio horren produktuak bat ebaluazio geografikoak, sektorialak eta prozesuen ebaluazioak identifikatzen lagunduko duten elementuak izatea izango dela. 2024an egingo dira ebaluazio horiek eta goian adierazitako 2. helburua lortzeko egindako azaleko ariketan sakontzen lagunduko dute.

Deialdian barne hartutako agentei ebaluazioan aktiboki parte hartzera gonbidatu die Noemík (2005-2006 aldian erremintaren diseinuan izan zuten parte-hartzearengatik zein urtez urteko deialdietan ekimenak aurkeztuz duten esperientziarengatik).

Eta adierazi du erreferentziazko puntuetan eta lizitazioaren orrietan ari direla gaur egun lanean. Laguntza eskatu du Noemík lizitazioa zabaltzeko, betiere lana egiteko kandidatura onak izateko helburuarekin. Prozesua udazkenean esleitu eta hasi dadila aurreikusten dela adieraziz amaitu du. 8 hileko iraupena izango du gutxi gorabehera kontratuak.

Presidenteak eskerrak eman dizkio Noemíri aurkezpenagatik, eta erreakzioak, komentarioak eta ekarpenak partekatzeko tartea ireki du.

Natividad Campillok adierazi du ez duela ulertu nola uztartzen diren erakundeak ebaluazioan. Ainarak argitu du ebaluazioak objektiboa eta partizipatiboa izan nahi duela osagai guztietan, eta deialdian parte hartzen duten Hegoko agente esku-hartzaileei zein euskal GGKEei kontsulta egingo zaie ebaluazioaren helburu bakoitza aztertzeko.

Jose Urrutiak azpimarratu du azterketa sakonagoaren ardatz gisa 2014-2017 aldian hartzean Afrika lehenesteari dagokionez aztertzea interesgarria izango litzatekeen aldeko aurreko elementu batzuk galtzen direla.

Alberto Cereijok iradoki du interesgarria litzatekeela 2. helburuan ikuspegia zabaltzea, eta aurreikusitako helburuek tresnan izandako betetze-maila aztertzeaz gain, gaur egun identifikatzen diren erronketatik (lege berria, plangintzak...) nola urruntzen den edo ez den urruntzen ere aztertu behar da. Dekretu berria ezartzen lagunduko du, ikuspegi eguneratuarekin.

Eta 5. helburuari dagokionez, iradoki du interesgarria litzatekeela azterketa deialdian parte hartzen ari diren euskal erakunde eta Hegoko erakundeetara zabaltzea, proiektuak kudeatzera zenbat denbora ari den bideratzen ikusteko. Tresnaren balio bereizgarriaren 6. helburuari dagokionez, gehitu du interesgarria litzatekeela halaber Europari edo kudeatzeko modu desberdinak ekarri ditzaketen beste ekimen batzuei begiratzea. Azkenik, azpimarratu du interesgarria litzatekeela ebaluatzea nola erraztu duen dekretuak aliantzak ezartzea, batez ere gizarte-eraldaketako hezkuntzan, herritarrekin eta beste agente batzuekin.

Egindako ekarpenak eskertu ditu Noemí eta astebeteko epean ekarpen gehiago egiteko posibilitatea eskaini du. Aurkezpena partekatzeko eskatu du Natalia Rodríguezek.



PRO_EBAL_elankidetz
a.pptx

5. KONTSEILUAREN DEKRETUA AZTERTZEKO LANTALDE BAT SORTZEARI BURUZKO ERABAKIA

Presidenteak gogorarazi du Lankidetzari eta Elkartasunari buruzko Euskal Legearen aurreproiektuaren 11. artikulua Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseilua arautzen duela, eta ondorengo arauzko garapena aurreikusten duela. Kontseiluko idazkariari eman dio hitza ildo horretan aurrera egiteko lan-proposamen bat aurkeztu dezan.

Noemí de la Fuentek azaldu duenez, 11. artikulua, Kontseiluaren izena egokitzeaz gain (Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseilua izena izango du) haren funtzioetako batzuk mugatzen ditu (nahitaezko txostenak izaera orokorreko xedapenetara eta hainbat urtetarako plangintzetara mugatzen ditu, azken urteetako esperientziaren arabera) eta zeregin berriak ezartzen ditu, batez ere, euskal lankidetzaren egoerari buruzko bost urtez behingo txostena (11.4.e art.), garrantzi handiagoa eman nahi baitio lankidetzaren politikari, eta eztabaida parlamentario bat eragin.

Era berean, 11. artikulua 5. idatz-zatiak ondorengo arauzko garapen batera bideratzen du Kontseiluaren osaera, izendapenen eta kargu-uzteen sistema, eta funtzionamendua. Ildo horretan, lehenengo xedapen iragankorrak ezartzen du nola funtzionatuko duen Kontseiluak legea onartzen denetik Kontseiluaren beraren dekretu erregulatzaileria onartzen den arte, eta artikulua 3. idatz-zatiak adierazten du osoko bilkurak erabakiko duela alderdi soziala izendatzeko hautaketa-sistema, agenteen erregistroa desagertu denez.

Hori horrela, Noemik adierazi du premiazkoa dela dekretu berria lantzen hastea, Kontseiluaren osaerari eta funtzionamenduari buruzko gogoeta egitea eskatuko baitu. Prozesua bultzatuko duen lantalde bat sortzea proposatu du. Azaldu du lehenengo zeregina informazioa aztertzea litzatekeela (beste kontseilu batzuk, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren historikoa, eta abar), eta hurrengo hilabeteetan onartzeko lan-proposamen bat egitea. Aipatu du ikusi egin beharko dela nola inplikatu osoko bilkura eta lantaldeak zenbat lan hartu beharko duen bere gain.

Presidenteak eskerrak eman dizkio Noemiri eta tarte bat ireki du erreakzioak eta komentarioak partekatzeko.

Natalia Rodríguezek adierazi du Koordinakundeak lantalde horretan parte hartuko duela, eta iradoki du bilerarik ez deitzea proiektuen deialdia amaitu arte. Gainera, Eneko Gerrikabeitiak galdetu du zein beste sektoretan parte hartuko duten Kontseiluaren osaera kontuan izanda.

Josu Urrutiak adierazi duenez, eta ahalegin boluntarioa dela kontuan izanda, zaila da adieraztea nortzuk osatu beharko luketen taldea, baina uste du egokia izango litzatekeela hainbat erakundetako ordezkariak izatea, eta erakunde horien artean ditugu eLankidetzaren eta Eusko Jaurlaritzaren beste sailen bat, foru-erakundeak, toki-erakundeak, Euskadiko GGKEen Koordinakundea, unibertsitatea eta beste gizarte-erakunde batzuk. Eta foru-aldundiek langile teknikoaren taldean parte hartu ahal izatea iradoki du.

Alderdi guztiak ordezkatuak egotearen premisapean talde bat sortzeko proposamena onartu da, sei edo zazpi laguneko talde batekin. Kandidaturak maiatzaren 26ra arte consejo@elankidetzaren.eus helbide elektronikoaren kontuan aurkeztu ahal izatea proposatu du Noemik.

6. GALDE-ESKEAK

Gai-zerrendako azken puntura iritsi garelarik, inork eskaerarik edo galderarik ba ote duen galdetu du presidentek.

Paul Ortégak hartu du hitza eta Lankidetzari eta Elkartasunari buruzko Lege-aurreproiektuaren prozesuari buruzko informazioa eman du. Adierazi du aurreko bilkuran jakinarazi zela jendaurrean erakusgai jartzeko, parte hartzeko eta beste administrazioei kontsulta egiteko izapideetan gizarte-erakunde eta herritar erakundeen 26 alegazio, eta Eusko Jaurlaritzaren hainbat sailerako, foru-aldundietako eta Garapenerako Lankidetzaren Erakunde Arterako Batzordeko 19 txosten jaso zirela.

Gehitu du alegazioak aztertu ondoren aurreproiektuak beste hiru txosten gainditu behar dituela:

- Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordea

- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren nahitazeko txostena

Adierazi du une honetan Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenaren zain gaudela, horixe baita gairik beharrezko azken txostena aurreproiektua Gobernu Kontseiluari helarazteko, Kontseiluak onartu eta Eusko Legebiltzarrera bidali dezan.

Iñaki Orubek adierazi du bilkura CODECA elkarteko eraildako emakumeak oroitzeko isilune batekin hasi denez, egokia iruditzen zaiola herrialde askotan (Nikaragua, El Salvador, SEAD, Palestina eta India aipatu ditu, besteak beste) giza eskubideen defendatzaileek bizi duten larritasun-egoera aipatzea. Gogoeta bateratu bat egitera gonbidatu du hainbat herrialdeetan lana asko zailtzen ari den erronka hori planteatzeko. Tokian bertan erakundeek berek aipatutako malgutasun eskasa eta egungo murrizketak aipatu ditu.

eLankidetzako zuzendari Paul Ortegak gune demokratikoaren murrizketaren kezka partekatzen duela adierazi du.

Malguagoak izatea ahalbidetuko digun formula juridikoa bilatu beharko litzatekeela komentatu du Nerea Melgosak.

Noemí de la Fuentek gehitu du proiektuen tresnaren ebaluazioan kontuan hartu beharrezko elementuetako bat ere badela.

Jose Antoniok gune demokratikoaren murrizketa azpimarratu du, eta aktibisten biziaren aurkako zuzeneko erasoekin lotutako egoeren larritasuna ere adierazi du.

Aztertzeke beste gairik ez dagoenez, presidenteak amaitutzat eman du bilkura, pertsona guztien parte-hartzea eta lana eskertu du, hauteskunde-deialdian jarraitzen duten edo ez alde batera utzita, eta uda igaro arte esan du agur.

NOEMÍ DE LA FUENTE PEREDA

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO IDAZKARIA**

JOSE ANTONIO RODRÍGUEZ RANZ

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO
PRESIDENTEA**